

GAIXOTASUN BAZTERTZAILEAK SARRERAKO OSASUN AZTERKETAN
BALIO ANITZEKO GIDARI-KOBRTAZAILEARENTZAT

Ikusmen gaitasuna:

- Ikusmen binokularra: Ez da onartuko 8/12 baino urrutiko ikusmen zolitasun txikiagorik begi hoberenean eta 6/13 okerreanean, ez eta estroboskopia eta foria nahasmendurik. Betaurrekoen bidez zuzendu behar bada, haien graduazioa ez da ± 6 dioptria baino handiagoa izango. Hurbileko eta tarteko ikusmen zolitasun nahikoa behar da, zuzenketarekin ala gabe. Ikusmen kromatiko arrunta Ishihara testarekin.
- Ikusmen monokularra: Ez da onartuko.
- Ikus eremua: Ikus eremu normalaren murrizketarik ez da onartuko.
- Betazal higikortasuna: ez da ptosirik eta lagoftalmiarik onartuko.
- Begi higikortasuna: Ez da estrabismo nabarmenik, diplopiarik, nistagmorik eta begi nini arreflexiarik onartuko.
- Begietako gaixotasunak: Ez da konjuntibitisik, keratitisik edo iritis kronikorik onartuko, ez eta glaukomarik eta anomaliarik malko bideen jariatzean. Askatze eta diskromatopsia larrikeri ere ez da onartuko.
- Ikusmenean eragina duten gaixotasun sistemikoak: Ez da erretinopatia diabetikorik, hipertentsiborik, erretina hemorragiarik onartuko.

Entzumen gaitasuna:

- Telefonoz elkarrizketa bat izateko entzumen nahikoa izatea (audiograma batek baieztatua) eta alerta tonuak eta igorgailuaren mezuak entzuteko gauza izatea.
- Ez dira onartuko:
 - 500 eta 1000 Hz-ko frekuentzietan 40 dB baino entzumen galera handiagoko audiometriak.
 - Belarri okerreanean 2000 Hz-ko frekuentzietan 45 dB baino entzumen galera handiagoko audiometriak.
 - Belarri bakar batean ere 4000 Hz-ko frekuentzietan 60 dB baino entzumen galera handiagoko audiometriak. Entzumen gaitasun txikiena duen belarrarian 70 dB-ra iristea onartuko da soilik beste belarrarian 50 dB gainditzen ez direnean.
 - Nahasmendu kronikoak mintzatzean, ahozko komunikazio ozena eta garbia eragozten baldin badute.
 - Bertigoak eta oreka arazoak.
 - Entzumen gaixotasunak: otitis kronikoak, hanturak edo tinpano zulaketak, ezta alde bakarrekoak ere.

Lokomozio aparatua: ez dira onartuko ibilgailuetan egokitzapenak behar dituzten patologiak.

- Goiko gorputz adarrak: Ez da akatsik, indar murrizketarik, mutilaziorik, gaixotasunik edo lesio iraunkorrik (ezta alde bakarrekoak ere) onartuko sorbaldetan, ukondoetan, eskumuturretan eta hatzetan, gidari-kobratzailearen postuko aginteen erabilera normala eragozten badute, ez eta eskuineko eskuaren pintza funtzioan eragina duen patologiari.
- Beheko gorputz adarrak: Ez da indar edo mugikortasun murrizketarik onartuko beheko gorputz adarretako giltzaduretan, bereziki eskuinekoan. Era berean, ez da anputaziorik onartuko, behatzak salbu, baldin eta mugikortasun eta indar osoak baldin badaude tibia-tartso hezurren giltzaduran.
- Bizkarrezurra: ez da nahasmendu anatomo-postural, degeneratibo edo traumatiko nabarmenik onartuko bizkarrezur mailan edo, oro har, gihar-eskeleto sisteman.
- Giltzadurak: Ez da ankilosiarik edo giltzadura zurruntasunik onartuko, gidari-kobratzailearen postuan eragina baldin badu.
- Garaiera: Honako tarte hauetatik kanpo dagoen garaierarik ez da onartuko: 155 - 200 cm. Hala ere, kasu bakoitza aztertuko da.

Sistema kardiobaskularra:

- Ez dira onartuko:
 - Kardiopatiak eta baskulopatiak, osasun azterketa egiteko unean konpentsatuak egon arren.
 - Miokardiopatia iskemikoak edozein modukoak. Infartu, angina, aneurisma aurrekariak. Ez dira onartuko patologia hori argi eta garbi iradokitzen duten marraketa elektrokardiografikoak.
 - Bihotzeko gutxiegitasuna, sinkope aurrekariak, aldizkako klaudikazioa.
 - Bihotz erritmo arazoak, aurikula fibrilazioa, takikardiak tratamenduan, minutuko 95 taupadatik gorako bihotz maiztasuna.
 - Taupada markagailuak, ez eta kardiobertsore ezarriak eta balbula protesiak.
 - Tentsio Arterialaren zifrek ez dute gaundituko Sistolikoak 140 mmHg eta Diastolikoak 90 mmHg tratamendurik gabe.
 - Tratamenduak ahotik hartzeko antikoagulatzailerekin, ez eta arritmia aurkakoak eta HTA terapia pean 3 edo botika gehiagorekin.
 - Ez da onartuko beheko gorputz adarretan barize handiak izatea, maleoloetako edemekin, fobeekin eta ultzerekin edo azaleko bestelako nahasmendu trofikoekin.

Gernu-Ugal aparatua:

- Ez dira onartuko:
 - Giltzurrun transplanteak.
 - Giltzurrunetako gaixotasun kronikoak, urolitiasia osasun azterketa egitean eta ez errepikaria, giltzurrun polikistosis, glomerulopatiak eta nefropatiak.
 - Gernu ihesa eta gernu egite nahasmenduak.
 - Gizonezkoetan, ez da onartuko prostatako patologiarik, ez eta maskuriko patologia akuturik edo azpiakuturik osasun azterketa egiten den unean.
 - Emakumezkoetan, ez da gernu-ugal aparatuko tumore patologiarik onartuko, eta ez da gernu ihesik eduki behar.

Arnas sistema:

- Ez dira onartuko:
 - Arnas gaixotasunak: Birika enfisema, bronkitis kronikoa, asma, biriketako fibrosia, tumoreak, bularraldeko malformazioak, orbainak birika uzkurduarekin. Nahasmendu funtzionala eta gaixotasunaren bilakaera baloratuko dira, bereziki kontuan harturik bularraldeko minik dagoen edo izan daitekeen, eguneko logura, disnea paroxistikoa edo gidari-kobratzailearen posturako jokaeran eta segurtasunean eragina izan ditzaketen bestelako alterazioak.
 - Osasun azterketa egiten den unean ez da onartuko ez asma krisirik, ez kontrolatzeko zaila den asmarik, ez eta eztul sindrome presinkopalik.
 - Ez da onartuko BGOKrik (Biriketako Gaixotasun Obstruktibo Kronikoa), ez eta LAHSrik (Loaren Apnea-Hipopnearen Sindromea).
 - Ez da onartuko disnearik, edozein dela ere haren mota edo etiologia.
-

Digestio aparatua:

- Ez dira onartuko:
 - Digestio gaixotasunak: ultzera peptikoa, heste minbera, kolitis ultzeraduna, Crohn gaixotasuna, gibelesko zirrosia, hepatopatia kronikoak, gibelesko tumoreak, pankreako gaixotasunak. Nahasmendu funtzionala eta gaixotasunaren bilakaera baloratuko dira, bereziki kontuan harturik gidari-kobratzailearen posturako jokaeran eta segurtasunean eragina izan dezakeen konplikaziorik dagoen edo egon daitekeen.
 - Ez da onartuko organo horien profil analitikoan alterazio esanguratsurik.

Sistema endokrino-metabolikoa:

- Ez dira onartuko:
 - Diabetes intsulina-mendekoak.
 - 110 mg/dl-tik gorako oinarrizko glukemia balioak, ez eta hipogluzemiak.
 - Obesitatea (GMI: 30 edo gehiago).
 - Ez da onartuko lipido edo/eta tiroide profilaren nahasmendu esanguratsurik.

Neurologia:

- Ez dira onartuko:
 - Garuneko hodietako istripuen ondorioak.
 - Edozein etiologiako epilepsia eta krisi konbultsiboak.
 - Edozein etiologiako dardarak eta espasmoak.

Buruko osasuna:

- Ez dira onartuko:
 - Gaixotasun psikiko kronikoak, bereziki errealitatearen pertzepzioa, jokaera edo nortasuna nabarmen aldatzen edo hondatzen dutenak.
 - **Alkoholismoa eta droga mendekotasunak.**